

## Emozioak ezagutzen

'Emozioen garrantzia familian: nola zaindu seme-alaben emozioak' hitzaldia eman du Donna Apellaniz adituak / 6

## Aitortza, dantza eginez

Elkar+Ekin Dantzan egitasmoarekin bat egin du Lasarte-Oriak, elkarteen lana aitortzeko / 7

San Pedro Jaietako  
kartelaren eta  
omenduaren bila  
hasi da Lasarte-  
Oriako Udala / 4

Eguzki Arkupe  
Rehabilitacionesek  
8-1 irabazi dio  
Idiazabali; bigarren  
postua du xede / 10

**2 BETAURREKO  
GRADUATU  
SOILIK 59€**

ESKAINITZA BARRUAN

ukipen-lenteak doan hilabete baterako  
+  
premium azterketa bisuala  
+  
gogobetetze-bermea



Kale Nagusia, 15  
Tel.: 943 37 74 55  
**LASARTE-ORIA**

**MULTIÓPTICAS**  
50 urte zuen ikusmena zaintzen

www.multiópticas.com   

# Ohiko eta ezohiko saio bana izan dira martxoan

Ohiko udalbatzarra egin du Lasarte-Oriako udal korporazioak martxoaren 10ean eta ezohikoa, berriz, handik sei egunetara. Hainbat puntu eztabaidatu dituzte lehenengoan, eta Sandra Barkaiztegiren kargu hartzea egin dute bigarrengoan

## Txintxarri

Udal korporazioa hilaren 10ean bildu zen martxoko ohiko udalbatzarra egiteko. 2022ko otsailaren 10ean ospatutako udalbatzararen aktaren onarpenak ireki zuten saioa. Horren berri eman zuen Lourdes Acevedo alkateordeak. Bera izan zen saioa gidatzeaz arduratu zena, Agustin Valdivia alkateak ezin izan baitzuen bertaratu. Gaia onartu eta bigarren puntuari eutsi zioten.

Lasarte-Oriako ostalaritzako jardueren osagarri diren terrazak eta mahaitxoak jartzeko jabari eta erabilera publikoko lurzorua okupatzea arautzen duen ordenantza hasierako onarpenaz aritu ziren. Bozketari ekin aurretik EAJko Boris Nogalesek hartu zuen hitza. Bere alderdiak abstentzioaren alde egingo zuela aurreratu zuen, eta nabarmendu, ostalarien parte-hartzea faltan sumatu dutela. Bozka egin zuten gero eta hau izan zen emaitza: PSE-EEren aldeko zazpi bozkekin eta EH Bildu, EAJ eta ELOP-en zortzi abstentzioarekin aurrera egin zuen gaiak. Bozka azalpena egiteko tartea zabaldu eta EH Bilduko Uxue Loinzek hartu zuen hitza. Azaldu zuen bere alderdia ordenantzaren irizpide orokorrekin ados dagoen arren, zenbait puntuk zalantza eta kezka sortu dizkiela.



Udal korporazioko kideak martxoko ohiko udalbatzarrean. TXINTXARRI

Eurek ere ostalarien parte-hartzea faltan bota dutela ere azpimarratu zuen.

A.35 Zabaleta Berri HIEren plan partzialaren aldaketa, a.3.2.1, a.3.2.2 eta a.4.4 lurzatiei buruzko behin betiko onarpenaz aritu ziren hirugarren puntuan. Ez zuen eztabaidarik eragin eta bozka egin zuten zuzenean. PSE-EEk (zazpi bozka) eta EH Bilduk (hiru bozka) alde bozkatu zuten, eta EAJ eta ELOP abstenitu egin ziren. Aurrera egin zuen gaiak.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren 2021-2023 urteetarako etxeko

laguntza zerbitzua finantzatzeko hitzarmena sinatzea eztabaidatu zuten jarraian. Inolako alderdik ez zuen eztabaidarako tartean hitzik hartu, eta zuzenean bozka egin zuten; aho batez onartu zuten. Bozka azalpenean ELOPeko David Aresek hitz egin du. Batzordean abstentzioaren alde egin bazuten ere, orain alde zergatik bozkatu duten argudiatu zuen.

Kreditu gehigarrien bidez kredituak aldatzeko dosierra, 2022/1 zebakiaz identifikatua onesteko proposamena egin zuen gero Acevedok. Nahikoa eztabaida sortu

zuen gaiak. Berdintasun teknikaria kontratatze proposatu da kreditu aldaketa eta lanpostu horren beharra udal korporazioko alderdi guztiek nabarmendu zuten. Halere, azaldu ziren desadostasunak. EAJko Estitxu Alkorkak, adibidez, espedientea aurkezteko moduarekin agertu zen kritiko. EH Bilduko Uxue Loinazentzat, berriz, gobernu taldearen proposamena "petatxu" bat da eta ozen aldarrikatu zituen berdintasun ikasketak dituen teknikariaren eta sailaren beharrak. PSE-EEren aldeko zazpi bozkekin eta EH Bilduren, EAJren eta ELOP-en abstentzioarekin aurrera egin zuen gaiak.

## Adierazpen instituzionala

Bozeramaileen batzordeak Ukrainako inbasioaren gaineko adierazpen instituzionalaren berri eman zuten seigarren puntuan. Adierazpena irakurri eta zuzenean zazpigarren gaiari eutsi zioten.

Gipuzkoako bide berdeak turismoa sustatzeko eta garatzeko Gipuzkoako Foru Aldundiaren proiektuari babesa emateko alkatearen proposamena landu zuten. Gai horrek ere eztabaida eragin zuen, baina aurrera egin zuen. PSE-EEk, EH Bilduk eta ELOPek alde bozkatu zuten, eta EAJ, aldiz, abstenitu egin zen.

## Bi mozio

Mozio bana landu zituzten zortzigarren eta bederatzigarren puntuetan. Oposizioko alderdiek (EH Bildu, EAJ eta ELOP) elkarrekin aurkeztu zuten lehena, Berdintasun teknikaria eskatzeko. Honako hau galdegin zuten: Berdintasun teknikaria postua sortzea eta Berdintasun teknikaria kontratatzea Lasarte-Oriako berdintasun plana abian jarri eta egikaritzeko. Aipatu hiru alderdien aldeko bozkekin eta PSE-EEren

abstentzioarekin aurrera egin zuen gaiak. EAJk aurkeztutako mozioa landu zuten azken aurreko puntuan. Plazaolako bide berdea orain burutzea eskatu zuten jeltzaleek eta aho batez onartu du udal korporazioak. Hauek dira jeltzaleek egindako bi eskakizunak: Lasarte-Oriako Udalak Gipuzkoako Foru Aldundiarekin negoziatu eta adostea, Foru Aldundiak titulartasun pribatuko Oztarango tunela erosi dezan, eta, ondoren, erabilera berrirako egokitzea, beharrezko berrikuntzekin; hori guztia, Gipuzkoako lurraldean planteatzen ari diren mugikortasun iraunkorreko planen baitan. Lasarte-Oriako Udalak etorkizunean azterketa bat egin dezala Plazaola inguruko lursailak erosteko eta etorkizun hurbilean Plazaolako Parke Berdea, Lasarte-Oriako birika, sortu ahal izateko. Udalbatzarra amaitu aurretik, galdera eta erreguen tartea zabaldu dute, eta hainbat gai jarri dituzte mahai gainean, horien artean, Biyak Bat zaharren egoitza pareko zebraidearen egoera txarra, udalaren estabilizazio plana eta eskola kontseilua.

## Barkaiztegiren kargu hartzea

Asteazkenean hartu du zinegotzi kargua Sandra Barkaiztegi Navarro EH Bilduko kideak. Urgentziako ezohiko udalbatzarra deitu du udal korporazioak horretarako. Deialdiaren urgentzia aho batez onartu ostean egin dute Barkaiztegiren kargu hartzea.

## Ibilgailuen gaineko tasak kobratuko ditu Lasarte-Oriako Udalak

Lasarte-Oriako Udalak jakinarazi duenez, Ibilgailuen Gaineko Zergak kobratzeko epea ireki berri du: ordaintzeko epea maiatzaren 6an bukatuko da, ostiralarekin. Ordainagiria helbideratuta duten herritarrei apirilaren 19an kobratuko die tasa hori. Dirurik ez balute izango kontu korrontean, bigarren aldiz saiatuko lirerateke

zerga kobratzen epea itxiko duten egunean bertan, maiatzaren 6an.

Printzipioz, martxoaren 1ean hasi behar zuen udalak tasa hori kobratzen, asteartearrekin, baina epea geroratzea erabaki zuen azkenean, COVID-19aren pandemia tarteko. "Gipuzkoako Trafiko Buruzagitzak Probintzialak esan zigun omikron aldaerak atzeratu egingo zuela errolda egiteko beharrekoa den informazioaren bidalketa".

## Koronabirusaren intzidentziak igotzen jarraitzen du

Osakidetza eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak 52 kutsatze atzeman dituzte Lasarte-Orian martxoaren 10etik 16ra, aurreko zazpi egunetan baino bost gehiago. Hori dela eta, intzidentzia tasa metatuak igotzen jarraitzen du: hilaren 16an 519,82 izan zen. Astebete lehenago, aldiz, 399,05. Datu ofizialak eskuetan, 2020ko

martxotik aurtengo erdialdera arte 5.813 kasu diagnostikatu dituzte gure herrian. Birusa hartu duten ia guztiak osatu dira edo bidean dira, baina hil egin dira 24 pertsona. Orain arteko zifren arabera, intzidentzia gehieneko hilabetea aurtengo urtarrila izan da Lasarte-Orian: 31 egunetan 2.120 positibo zenbatu zituzten, eguneko 68 pasatxo.

Eskualdeko udalerrietan 89 kasu positibo erregistratu zituzten hilaren 16an: 30 Lasarte-Orian, 20 Hernanin, hamasei

Andoainen, hamar Astigarragan, zazpi Usubilen eta sei Urnietan.

Euskal Autonomia Erkidegoan ere igotzen ari da koronabirusaren eragina: intzidentzia tasa metatua 488,82 izan zen hilaren 16an. Ospitaleetan 147 pertsona daude ingresatuta gaur-gaurkoz, eta horietatik 23 larri daude, Zainketa Intentsiboetako Unitateetan.

COVID-19ari buruzko datu, eguneraketa eta bestelakoak <https://txintxarri.eus/berziak/koronabirusa-lasarte-orian> helbidean irakur daitezke.



Parte hartze zinegotzi Nagore Duran eta Agustin Valdivia alkatea, Sasoeta ikastetxeko obren berri emateko agerraldian. TXINTXARRI

# Obra berriak iragarri ditu Lasarte-Oriako Udalak

Sasoeta ikastetxerako oinezkoen sarbide berria eta Kale Nagusiko 63. zenbakitik 75.era berritze lanak egingo dituela jakinarazi du udalak. 245.630 euroko aurrekontua izango du lehenak eta 291.000koa bigarrenak, hala iragarri du, asteon, prentsaurrean

## Txintxarri

Sasoeta ikastetxerako oinezkoentzako sarbide berria egingo du udalak; Loidibarren pilotalekuaren atzealdean dagoen pasabidetik ikastetxeko jolasleku estalirako bidea egingo dute. Delsa Irun enpresa arduratuko da lan horietaz, eta 245.630 euroko kostua izango duela jakinarazi du Agustin Valdivia alkateak. Honako eskuhartzeak egingo dituzte aurrekontuaren barruan: hormigoizko malda eta eskailerak, autobideko urak jasotzeko kanala eta LED argiteria berria.

Aipatu obrek, egunero Kalbario bidean sortzen diren auto eta jende pilaketak arintzen lagunduko dute. Hiru hilabeteko iraupena

izango dutela aurreikusitako; ikasturte berrirako lanak amaituta egongo dira.

## Kale Nagusiko obrak, hastear

Udaleko Zerbitzuak saileko buru David Mateosek eta Agustin Valdivia alkateak aurkeztu dituzte Kale Nagusiko 63. zenbakitik 75.era egingo dituzten lanak. Zubieder enpresari adjudikatu dizkiote, 291.000 eurotan.

Valdiviak azpimarratu du "oso beharrezkoa" dela obra horiek egitea: "Herritarrek denbora zeramaten hori eskatzen, baina espero baino beranduago hasiko gara lanean, pandemiagatik". Mateosek zehaztu du kontratua sinatu eta hamabost egunera

ekingo diotela Zubieder enpresako beharginek bertako lanei, eta obrek sei bat hilabete iraungo dutela. Hau da, zehazki, datozen hilabeteetan egingo dutena: garajeetan ura ez sartzeko lanak; berri bat jarri eta ura kanalizatzeko bide propio bat egin, estolderiatik bereizita; eta Kale Nagusia 75 zenbakian ibilgailuentzako irteera berri bat egin, eta inguruko espaloioak hobetu.

Bestalde, alkateak ezagutarazi du udalak herriko argiteria aldatzen jarraitzen duela, eta LED bonbilak jartzen. Kale Nagusiko 63. zenbakitik 75.era dauden bospasei faroletan egingo dute hori.



NEURE KABUZ

GORKA ALVAREZ

## Agur eliza katolikoari

25 eta 40 urte artean ditugunon gehiengo zabal baten kasuan, eliza katolikoaren ohiko prozeduren barruan aurkitu genuen gure burua, bizitzako lehen urtea bete aurretik. Beste hainbat gaietan bezala, ohituraren eta tradizioaren mesedetan, elizan bataiatuak izan ginen, urte batzuetara jaunartzea egin genuen eta batzuk nerabezaroran burutzen den fedearen eta sinesmenaren baieztapen errituala ere egitera iritsi ginen.

"Millennial"-en gehiengoak ordea, kristau fedearen sinesmenetik, elizaren praktiketatik eta azken batean katolizismotik oso urrun kokatzen dugu gure burua. Inongo loturarik izan nahi ez duzun erakunde baten atzaparretan harrapatuta aurkitzen zara eta elizak ederki probesten du hori bere estatistikak erabiltzeko eta horrela datuetan oinarritzen den eta errealtatetik urrun kokatzen den gizartearen babesa, agerian uzten saiatzen da.

Ez naiz sartuko, eliza katolikoaren inguruan puri - puria-n dauden hainbat gaiekin, agerikoak baitira eta lan handia daukagulako alor honetan egiteko batetik argitze prozesuetan, egindakoak onartu eta erreparatze bidean... Bestetik, horrelakoetan gertatzen den bezala, orokortzeko ohitura txarra izaten dugula ere azpimarratu nahiko nuke eta esan beharra dut erakundean bertan, fede onez eta modu onean auzo lanean aritutako jende asko ezagutzen dudala.

Soilik, hausnarketa prozesu kolektibotik, ekintza indibidualerako pausoan urratsak ematera gonbidatzea gustatuko litzaidake. Urteetan zehar izandako atxikimendu behartu horretatik, eta prozedura simple eta azkar baten bidez, "Millennial" generazioak ohituraz eta tradizioz elizarekiko izan dugun atxikimendu hori puskatzeko aukera mahai gainean jartzera nator. Askori burutik pasa zaiena, egiteko zintzilik izango dutena eta askotan prozedura zail eta aldrebesa dela entzun izanagatik atzeratu edo alboratu dutena.

Prozedura erraza, sinplea eta azkarra da. Gehiago esango nuke, prozedura horretan egin beharreko pausoetan pertsona atseginak eta adeitsuak topatu ditut eta gauzak erraztu besterik ez dizkirate egin nahiz eta erakundetik kanpo joateko eskaria burutzen aritu naizen.

Familiarteko eta lagunei helarazterakoan, erantzuna ezin hobe izan da eta norberaren erabakiez haratago, talde hausnarketa prozesu bat irekitzen denaren sentsazioa izan dut, nire barruan aspalditik nuen ideia berreskuratzera bideratu nindutenen kasuan bezalatsu.

Nik esan diot agur. Zuk zergatik ez?

**txintxarri KORRIKA-ko zenbaki bereziak**

Deskontu bereziak herrikoentzat!

**apirilaren 1ean eta 8an**

Zure komertzioa bertan iragarri nahi duzu? Jar zaituz gurekin harremanetan!

Eskatu tarifak: [publizitatea@ttakun.eus](mailto:publizitatea@ttakun.eus) | 646 82 44 66

**Ttakun 30 urte** **Zozketa!**

Ttakun Kultur Elkarteko bazkide zara? **æk**

KORRIKA 22 PRODUKTUAK zozkatuko ditugu izena ematen duten bazkideen artean.

Eman izena martxoaren 31 baino lehen

**HITZ EKIN**

[harpidetza@ttakun.eus](mailto:harpidetza@ttakun.eus) helbidean edo 646 82 44 66 (whatsapp)

# Sanpedroetako kartelaren eta omenduaren bila

Lasarte-Oriako Udalak lehiaketa eta prozesu bana jarri ditu martxan, hurrenez hurren, sanpedroetako kartela eta omendua aukeratzeko. Apirilaren 1a eta 3a dira parte hartzeko azken egunak. Ondo bidean, jaiak ekainaren 28tik uztailearen 2ra ospatuko ditu herriak

## Txintxarri

Pandemiak eragozten ez badu, aurtengo San Pedro Jaiak ekainaren 28tik uztailearen 2ra ospatuko ditu Lasarte-Oriak. Udalak abiatu ditu prestaketa lanak: egitaraua iragartzeko kartelaren eta ekainaren 29an aitortza jasoko duen norbanako, talde, eragile edo kirol klubaren bila ari da. Horiek aukeratzeko aldera lehiaketa eta parte hartze prozesua jarri ditu martxan, hurrenez hurren.

Herriko jai nagusiak irudi batean bildu eta txapelketan parte hartzera animatzen direnek apirilaren 1era arteko epea izango dute horretarako. Udalak



Aterpea merkatarien elkarteak omendu zuen udalak 2019ko sanpedroetan. TXINTXARRI

jakinarazi du aurkezten diren kartel guztiek honako esaldi hau eraman beharko dutela: *San Pedro Jaiak Lasarte-Oria 2022*. Partaideek nahi adina lan aurkeztu ahalko dituzte, eta teknika libre izango da; hori bai, proposamenek jatorrizkoak eta beste lehiaketaren batean saritu gabeak behar dute.

Euskarri digitalean lanak aurkeztu nahi dituztenek *s a n p e d r o j a i a k @ l a s a r t e o r i a s a r e a n . e u* helbide elektronikora bidali beharko dituzte, 50x70 formatuan, eta izenburu batekin, baina ez egilearen izen-abizenekin. Hazbeteko 300 pixel izan beharko ditu. Lanak formatu fisikoan bidali nahi dituztenek, berriz, Gaztelekura eraman beharko dituzte, astelehenetik larunbatera, 12:00etatik 21:00etara. Izenburua atzealdean idatzi beharko dute, eta gutun bat eraman, parte hartzailearen datu pertsonalekin.

Kartelak bidaltzeko epea itxi eta gero, udalak bere webgunean jarriko ditu ikusgai, egileen sinadurarik gabe. Adierazi du herritarrek euren iritziak eman ahalko dituztela, eta aintzat hartuko dituela epaimahaiak,

deliberatzerako garaian. Udaleko Gazteria, Festak eta Kirola sailak aukeratzeko ditu kideak.

## Herritarren iritziak jasotzeko

Kartel batek iragarriko duen egitarauko jardueretako bat izango da sanpedroetako omenduari egingo zaion aitortza. Ekainaren 29an izango da, eta haurren zein helduen txupinak jaurtiko ditu. Nor izango den erabakitzeko asmoz, parte hartze prozesu bat jarri du martxan udalak, apirilaren 3ra arte iraungo duena.

Parte hartzeko bideak hauek dira: lasarteoriatar bakoitzak bere etxean jasoko duen orria postontzi jakin batzuetan uztea (Emakumeen Zentroa, kultur etxea, Gaztelekua, udaletzeko arkupe zaharrak edo kiroldegia), edo iradokizuna udalaren webgunearen bidez egitea, esteka honetan. Ez da nahikoa izango norbanakoaren edo eragilearen izena zehaztea; hori aukeratu izana arrazoitu beharko dute partaideek. "Herriari mesede egin dioten pertsonak, taldeak, elkarteak edo kirol klubak izan daitezke", zehaztu du udalak.



ARGAZKI LEHIAKETA

**LASARTE-ORIA**

## Banatu ditugu argazki lehiaketako sariak

Aurten ere Inauteritako argazki lehiaketa antolatu dugu TXINTXARRI aldizkarian. Argazkilari mozarroa, jantzi eta irudia bidali duzuenon artean bi irabazle aukeratu ditugu: bat, lone Artolak, Isaac Farrek eta Ana Eceizak osatutako epaimahaiak hautatu du; bestea, berriz, epaileek eta zeuek, irakurleok. Biek aste honetan jaso dituzte beraien sariak. Zorionak! Halaber, eskerrak eman nahi dizkizuegu argazkia bidali duzuen partaideoi, bozkatu duzuenoi eta epaileoi. Hurrengo urteko Inauterietan ere kalean elkar ikus gaitzela!

## EPAIMAHAIK AUKERATUTAKO ARGAZKIA



ARGAZKIA: Hilan eguna | Eneritz Odriozola Garcia

SARIA: 50 euro  
ORE AMA dendan  
erabiltzeko



## EPAIMAHAIK ETA IRAKURLEEK AUKERATUTAKO ARGAZKIA



ARGAZKIA: Panpin kuadrila | Amaia Tejeria Iriarte

SARIA: 50 euro  
GOXOGI dendan  
erabiltzeko eta  
ERRIGORA otar bat



## Sare sozialen eta sakelako telefonoen eguneroko eraginaz

Borobil Teatroak 'Narcis@' haur antzezlanaren emanaldia egin du kultur etxeko auditorioan. Peru da protagonista

### Txintxarri

Peru mutil gazte bat da. Lagun bakarra du, Maialen, eta ikaskideek baztertu egiten dute. Bere urtebetetze festara guztiak gonbidatu arren, Maialen besterik ez da joango. Gurasoek

smartphone bat oparituko diote eta une horretatik aurrera bere bizitza goitik behera aldatuko da. Hori da *Narcis@* haur antzezlanaren argudioa; Borobil Teatroak martxoaren 12an ekarri zuen Lasarte-Oriara.

Sare sozialek beste norbait izateko aukera ematen diote eta Narciso izatea erabakiko du, bera ez den guztia izateko. Hala, bizitza errealean jaramonik egiten ez diotenak jarraitzaile izango ditu eta gero eta gehiago biziko da sakelakoari begira, bere egiazko harremanak kaltetzeraino.

Anartz Zuazua da zuzendaria, eta aktoreak, hauek: Aia Krus, Gaizka Chamizo, Amaia Irazabal eta Asier Oruesagasti.



'Narcis@' antzeztu dute Borobil Teatroa konpainiako aktoreek. TXINTXARRI

## Martxoak 8aren harira



Biyak Bat egoitzako kideak, bideo foruma hasteko prest. TXINTXARRI

**Bideo foruma.** Biyak Bat egoitzako kideek bideo forumean parte hartu zuten hilaren 16an. Udalak Martxoaren 8aren harira antolatutako jarduera izan da, eta *El club del libro* filma ikusi zuten. Egoitzako erabiltzaile ugari gerturatu ziren, eta proiektioaren amaieran, solasaldia egin zuten.



Bea Larrañaga umoregilea, 'The Show Must Go On' bakarrizketan. TXINTXARRI

**Antzerkia.** Martxoaren 8aren harira Lasarte-Oriako Udalak antolatutako egitarauaren barruan, Bea Larrañaga umoregileak *The Show Must Go On* bakarrizketa umoretsua egin zuen kultur etxean, hilaren 11n. Maitasun erromantikoa sustatzen duten abestiak baztertu, eta rock-aren alde egiten du La Rosi-k. Janis Joplin, Prince eta beste musikari ezagun batzuen piezak abestu eta dantzatu zituen, lotsarik gabe, zenbaitetan bere buruaz barre eginez; usteak apurtu eta bai rock-a bai umorea emakumeen kontua ere badirela erakutsiz.



## Gure ikasleen ahotan

**“Energiak gaur egun duen garrantzia eta honen inguruan dauden arazoei soluzioa ematen lagundu ahal izateak, asko erakartzen nau”**



Lander Azkarate lasarte-oriatarra Energiaren Ingeniaritza graduko bigarren maila ikasten ari da, Mondragon Unibertsitateko Orona Ideo campusean, Hernanin.

**Definitu apur bat zure burua: non egin dituzu orain arteko ikasketak?, baduzu hobby edo zaletasunik?**

Añorgako Amassorain eskolan eta Lasarte-Oriako Landaberri institutuan ikasi dut. Igeriketa egitea, gimnasia joatea, musika elektronikoa entzutea eta bidaiatzea gustuko ditut.

**Zergatik aukeratu zenuen Energia gradua? Eta zergatik Mondragon Unibertsitatea?**

Aukera ezberdinak aztertu ondoren, nire nahietara gehien gerturatu zen gradua zelako hautatu nuen Energiaren gradua. Izan ere, energiak gaur egun duen garrantzia eta honen inguruan dauden arazoei soluzioa ematen lagundu ahal izateak, asko erakarri ninduen. Mondragon Unibertsitatea aukeratu nuen ikaskuntza-eredua oso erakargarria egin zitzaidalako.

**Nola baloratuko zenuke orain arte bizitako esperientzia?**

Lehen ikasturtea erraza egin ez bazait ere, esfortzuaren medio egunetik egunera gehiago dakidala eta emaitzak aurrera ateratzen ari direla ikusteak gogotsu jarraitzeko indarra ematen dit. Momentu txarrak eta estresagarriak ere izaten dira, baina eguneroko lana ongi egin ezker, emaitza onak lortzen dira. Orain bigarren mailan nire egunerokotasunean denbora hobeto aprobetxatzeko eta ikasketak pisika bat lasaiago eramateko gai naiz.

**Nola definituko zenuke Mondragon Goi Eskola Politeknikoko metodologia?**

Ikaslearen jarraitutasun mailak oso handia izan behar badu ere, ebaluazioan zehar kontrol puntu ezberdinak izateak ikaslearen benetako jakinduria ebaluatzen laguntzen du, egun txar bat izateak ez baitzaitu joko kanpo uzten. Bestalde, klase garaian gauzatzen diren praktikek eta

seiheleko bakoitzaren amaieran dugun proiektu modeloak (Project Based Learning), klaseetan ikasitakoa era praktikoa batean ikusi eta hobeto barneratzeko balio digu.

**Unibertsitatek zer da gehien gustatzen zaizuna?**

Irakaslearen gertutasuna, ikaste prozesuaren praktikotasuna eta, kooperatiba bat izatearen ondorioz, Unibertsitateak enpresetara gerturatzeko duen erraztasuna. Gainera, ikasketetan zehar hizkuntza ezberdinak lantzeari ematen zaion garrantzia, etorkizunerako oso baliagarria dela esango nuke, izan ere hizkuntzetan ate asko irekitzen dizkizute.

**Etorkizunari buruz zeintzuk dira zure asmoak?**

Erasmus programa baliatuz, laugarren urtean norabait joan nahiko nuke nire ikasketak amaitzera. Behin gradua amaitu ondoren, master bat egitea gustatuko litzaidake.

# Haurren garapen emozionalaz aritu dira

GurasoLandia egitasmoaren baitan, haurren garapen emozionalaz ikasteko aukera izan dute guraso lasarteoriatarrek. Ane Ablanedo aditua izan da hizlaria, eta seme-alaben emozioei begirako hitzaldia eskaini die hitzordura gerturatu direnei

## Txintxarri

Ane Ablanedoren bisita izan dute Lasarte-Oriako gurasoek. Haurrei bideratutako pedagogia libreetan aditua da, eta ez da herria bisitatzen duen lehen aldia. Haurren garapen emozionalaz aritu da Manuel Lekuona kultur etxean. Ttakun Kultur Elkartek eta udalak elkarlanean antolatutako saioa izan da.

Haurren ongizatea zaintzen ez duen gizarte batean bizi garela argituz hasi du hitzaldia, eta hain zuzen ere, pertsonen eta haurren ongizatea erdigunera ekartzeko beharra azpimarratu

du. Horretarako haurrei begiratze moduari "direktibotasuna" kentzen dio Ablanedok; eredu "direktibotik" aldendu nahi du. Esan du pertsona oro izate hutsagatik gai dela bere bizitzaren bidea zein izango den erabakitzeke: "Pertsona orok dugu, humano izateagatik soilik existentzialki garrantzitsuak diren gauzei buruz erabakitzeke gaitasuna eta eskubidea".

Hala, haurrak hezteko eredu direktibo eta askatzailearen arteko aldeez ere mintzatu da. Azaldu du haurrak mendeko direnez, hau da, helduen beharra

dutenez, badirudiela direktibo izan eta ez izatearen arteko lerroa oso fina dela. Honako hausnarketa hau partekatu du hitzaldira joan diren entzuleekin: "Haurrak erabaki dezakeena errespetatzen dugun edo ez pentsatzean dago gakoa. Haurrei erabaki dezaketena erabakitzen utzi behar diegu, eta ez dezakeen horretan guk lagunduko diegu".

Heziketa aske baten aldeko apustuan sinesten du Ablanedok, eta hain zuzen ere, hori lortzeko direktibo izateari utzi behar zaiola nabarmendu du.

Hizlariaren esanetan, 0 eta 7 urteak dira pertsona baten



Ane Ablanedoren hitzaldia adi entzun dute herriko hainbat gurasok. TXINTXARRI

"garapen garai sentsibleenak", orduan garatzen baita "geroko nortasunaren oinarria". Hortaz, pertsona baten ongizateak erdigunean egon beharko lukeela defendatzen jarraitu du, bereziki haurrena, eta batez ere adin tarte horretakoena. "Etorkizuneko gizarte osasungarriago baten alde ari bagara, gure buruaren jabeago izango den pertsonen osatutako gizarte baten alde ari bagara, haurtzaroan jarri behar da fokua", gaineratu du. Analisi soziologiko txiki bat gehitu dio azalpen horri: "Orain arteko gizarte eredu aurrerakoienek

huts egin badute, haurtzaroak daukan garrantziari arretarik jartzen ez zaiolako da".

Haur baten lehen zazpi urte horietatik lehen hiruak "askoz garrantzitsuagoak" direla jakinarazi du, eta hiru urte horietan, lehena are gehiago: "Haurra zarenean eragin daitekeen kalte emozionala, orduan eta kaltegarriagoa izango da geroz eta haurragoa izan. Haurren lehen urtea da bereziki zaindu beharreko urtea".

Beste hainbat kontuz ere aritu dira; haurren indibiduaio prozesuaz, besteak beste.

# Emozioak, eraldatzen ari diren energia

'Emozioen garrantzia familian: nola zaindu seme-alaben emozioak' hitzaldia eman du Donna Apellaniz hezitzaile eta terapeuta emozional sistemikoak. Dozena bat guraso bertaratu dira Treba Gurasoak proiektuaren barruko jardura horretara

## Txintxarri

"Sinetsita nago hezkuntzaren bidez mundua alda daitekeela". Donna Apellaniz hezitzailearen hitzak dira: horrela hasi zuen hilaren 15eko hitzaldia Oriarte institutuko Landaberri eraikinean. Emozioez jardun zen, haiek definitzeko moduz, sorreraz, mota desberdinez, eta baita nerabezaroz ere, bertaratu ziren dozena bat gurasoekin. Kontzeptu teoriko ugari partekatu zituen haiekin, baina adibide praktikoa batzuk ere jarri zituen, eta galdera ugari egin zizkien ikus-entzuleei, haien parte hartzea sustatzeko.

Esate baterako, hau: "Erakutsi digu norbaitek sentitzen duguna kudeatzen? Guraso izatea



Oriarte Landaberrin eman zuen hitzaldia Donna Apellaniz adituak. TXINTXARRI

superbotere bat dela iruditzen zait, etengabe sentitzen ditugun emozioak oso garrantzitsuak dira eta sekulako lana egiten duzue egunero-egunero, kontuan izanda inork ez digula erakutsi horiek bideratzen". Beste galdera bat: "Zer dira, bada, emozioak?". Hori definitzea proposatu zien solasaldira joandakoei, eta, normala den moduan, kosta zitzaien ariketa egitea. "Kuriosoa da: egunero-egunero sentitzen ditugu gauza asko, baina ez dakigu definitzen; oso garrantzitsua da jakitea zer dabilkigun barruan. Emozioak energia dira, eta Albert Einstein-ek zioen moduan, eraldatu egiten da etengabe, ez dauka sorrera bat ezta amaiera bat".

**Kolore primarioak eta nerabeak** Apellanizek lau oinarriko emozio izendatzen ditu: amorrua, beldurra, poza eta tristura. "Kolore primarioak bezala, lau horiek nahastetik sortzen dira gainerako guztiak". Energia hori sentitzeko bi bide nagusi daudela zehaztu du: hitzen bidez eta ekintzen bidez. Emozioak blokeatzea kaltegarria dela iritzita, adituak uste du ikasi behar dela sentimenduak "era

osasuntsu eta funtzional batean bideratzen". Nerabeek ez horrenbeste, baina helduek "oso antzezle onak izaten" ikasten dutela azpimarratu du.

Lanketa emozionala egiteko "garai oso ona" da nerabezarora, Apellanizen aburuz. "Oso garrantzitsua da gazteei horretarako tresnak eta baliabideak ematea, garai oso hauskorra delako: izaera lantzen ari dira".

Adituak eman duen solasaldia Treba Gurasoak egitasmoaren barruko jardura izan da. Gipuzkoako Foru Aldundiko Gazteria sailak bultzatzen du proiektu hori, eta haurren zein nerabeen aukerak eta bizi kalitatea hobetzea du helburu, gurasoak hezkuntza gaitasunetan trebatuz. Hitzaldia Aldundiak berak, Lasarte-Oriako Udalak eta herriko hiru ikastetxeetako guraso elkarteek antolatu dute.

**"NERABEZAROA GARAI OSO ONA DA GAZTEEKIN LANKETA EMOZIONALA EGITEKO"**

# Elkarteak balioetsiko dituzte dantzaren bidez

EIBE elkarteak sustatutako Elkar+Ekin Dantzan egitasmoarekin bat egin du Lasarte-Oriak: elkarten lana ikusarazteko, 'Martxa baten lehen notak' abestiaren bertsio bat dantzatzuko dute hilaren 20an, Okendo plazan, 12:00etan. "Garrantzitsuena parte hartzea da"

## Iñigo Gonzalez Sarobe

Herriz herri "izugarritzko lana" egiten duten elkarten lana balioan jartzea, eurak zaintzea eta horietan parte hartzea sustatzea dira Elkarten Ikerketa eta Berrikuntzarako Ekosistema elkartearen (EIBE) helburu nagusiak. Eragileen eta horietan lan egiten duten pertsonen jarduna "modu aldarrikatzaile eta alai batean" bistaratze aldera, Elkar+Ekin Dantzan egitasmoa sortu dute: Euskal Herriko 50-60 bat herritan *Martxa baten lehen notak* abestiaren bertsio bat -Olatz Salvador musikariak eta Bihotx taldeak sortu dute- dantzatzuko dute hilaren 20an, baita Lasarte-Orian ere: Okendo plazan jarri dute hitzordua, 12:00etan.

Erketz EDTk, Kukuka Antzerki Ta Dantza Eskolak eta Plaza Dantza egitasmoak lagunak parte hartuko dute. Xabi Fernandez de Lezeak koordinatzen du azken hori. Jakinarazi du muxiko erara dantzatzuko dutela, eta



Kukukak, Erketzek eta Plaza Dantzak egingo dute dantza, Okendo plazan. TXINTXARRI

azpimarratu parte hartzea dela garrantzitsuena: Lasarte-Oriako elkarteren bateko kideak bertaratzen gongratatu ditu. "Ekimen hau Lasarte-Oriara ekarri dugunok ez dugu nahi inor etxean geratzerik modu

horretan dantzatzeko ez dakielako: pausoak ikastea oso erraza da".

## Hiru helburu nagusi

EIBE elkarteko kide Unai Lizasok azaldu dizkio TXINTXARRI-ri Elkar+Ekin Dantzan

egitasmoaren nondik norakoak. "Helburu nagusiak dira elkarten lana balioestea eta horri buruzko diskurtsoa eraikitzea; horien zaintza eta formakuntza sustatzea; eta herritarren parte hartzea bultzatzea". Azaldu duenez, "kezka" batetik dator proiektua: "Euskal Herriko altxor handiena dira eragileak eta horietan lan egiten duten pertsonak, eta errezeloa dugu ez ote den apur bat galtzen ari, gizartearen aldaketan eta teknologia berrien eraginagatik, besteak beste". Azpimarratu du "egunero-egunero" talde, klub, elkarte eta bestelakoetan lan egiten duten "milaka" pertsonen "bizitza hobetu" egiten dietela gainerako guztiei, alor askotan: euskara, feminismoa, kultura, kirola, eta abar.

Horren harira, ahalegin hori guztia "modu aldarrikatzaile eta alai batean" bistaratu nahi du EIBE elkarteak, eta dantzaren bidez egitea aukeratu du. "Komunitateetan, adierazpen artistiko hori beti egon da presente une garrantzitsuetan, eta bertako kideen harremanak sendotzeko ahaleginetan". Hala, Euskal Herriko 50 herrik baino gehiagok bat egin dute egitasmoarekin eta, esan bezala, *Martxa baten lehen notak* abestiaren bertsio bat dantzatzuko dute, hiruzpalau minutuz, 11:00etatik 12:30era. Bideoz grabatuko dituzte emanaldiak, eta ondoren, guztiekin ikus-entzunezko bat egingo du

EIBEk. Jarduerari buruzko informazio gehiago kontsulta daiteke <https://eibe.eus/elkarrekin-dantzan/> webgunean.

## "Lurra ongarritu"

"Gaur egun bizi dugun egoeraren aurrean zer egingo dugu, zain geratu ala lurra ongarritu? Guk bigarren bideari ekin diogu", nabarmendu du Lizasok. "Harrokeriarik gabe, baina harrotasunez, elkarten eguneroko lana aitortu nahi dugu, boluntario diren askoren jarduna ikusarazi, eta erakundeei haien laguntza aitortu". Horrekin batera, uste du "funtsezkoa" dela zaintza eta formakuntza bultzatzea, "iraun dezaten eta gero eta zerbitzu hobekak eman diezazkieten gizarteari". Herriak aberasteko eta horietan bizi diren arteko harremanak sendotzeko "funtsezko eragileak" direla esan du EIBEko kideak. "Jakina, elkarteetan lan egiten dutenak herritarrak dira, eta, horregatik, berebizikoa da haien parte hartzea sustatzea: imajinatu zer nolako Euskal Herria eraiki ahalko genukeen gutako bakoitzak gure denboraren %1a emango bagenio komunitatea trinkotzeari".

**"EZ DADILA INOR ETXEAN GERATU: MUXIKOKO PAUSOAK IKASTEA OSO ERRAZA DA"**



XUMELA

## Aurizberri ezagutu dute Xumelako kideek

Xumela koruko kideek Nafarroako mendialdea ezagutu zuten hilaren 12an, eta zehazki, Aurizberri herria. Korrika Kulturalaren gonbidapena jaso, eta ezagutu zuten eskualde horretan nolako den euskararen egoera, Irati irratiko eta AEK-ko kideen eskutik. Horren ostean, kalejira


egin zuten herrian barrena, eguerdian, eta bapo bazkalduta hartu zituzten indarrak arratsaldeko kontzerturako. Elizan aritu ziren Xumela, Zarauzko Montetxio eta Aurizberriko zein Orreagako abesbatzak. Nafarroako ereserkia abestuz bukatu zuten emanaldia.



XIRIMIRI

## Etxeberria eta Zamora, garaile

Alex Etxeberria eta Ibai Zamora gazteek irabazi dute Euskal Herriko Mus Txapelketako lehen kanporaketa, herri mailakoa. Xabi Arteaga eta Beñat Esnaola garaile dituzte finalean. 11 bikote aritu ziren hilaren 11n, Xirimiri elkartearen. Finalera iritsi ziren bi bikoteak sailkatu dira lurraldeko saiora: Seguran jokatzeko dute, hilaren 26an, 15:00etatik aurrera.



## Eguraldi iragarpena

Aurki itzazu bi irudien artean dauden aldeak. Bederatzi dira.




## Itzala

Zein da Maripurtzilen itzal zuzena?

## Mezu gordea

Esaera zahar asko eguraldia iragartzeko trukuak direla ematen du. Jarri iruditxo bakoitzaren azpian dagokion hizkia eta asmatuko duzu zer dioten honoko honek:




ALFABETOA									
A	B	C	D	E	F	G	H	I	
J	K	L	M	N	O	P	Q	R	
S	T	U	V	W	X	Y	Z		
.	:	,	!	?	"	+	=		






JOXE, EZ ATERA ATERKIRIK GABE, BEHARKO DUZU ETA. NIRE HEZURREK EZ DUTE ENGAINATZEN.




## Irudi engainariak

Puskatxo haueetatik erdiak irudi handitik hartuta daude eta beste erdiak engainariak dira, hau da, ez datoz irudiarekin bat, osoantzekoak izan arren. Bereiz itzazu.



Bide batez, marraztu iezaiozu zakur iletzu bat alboan eta margotu.



HOZKIRRIA

LANGARRA

ERREKA-LAINO

ENBATA

ZIRIMOLA



BAINA ATERKIA BEHARKO DUT ALA EZ DUT BEHARKO?!



DENA LANBROTUTA IKUSTEN DUT

## Zer?!

Ba al dakizu nola esaten zaion tramankulu honi? Haizearen abiadura eta norabidea neurtzeko balio du eta ez da A letraz amaitzen.

ISOBARA

ARRANPALO

BELOZIPEDO

ARRANGURA

HAIZAGAILU

ANEMOMETRO

UFADA-PALA

## Bakoitzari berea

Lotu hitz bakoitzari dagokion irudia. Kontuan hartu modu bat baino gehiago izan dezakegula gauzak izendatzeko, eta hemen ageri dena ez dela beharbada zuk ezagutzen duzuna.

# Bigarren postuan finkatzea helburu du

Eguzki Arkupe Rehabilitaciones taldeak Idiazabal Bai Reformas taldea garaitu du 1. Mailako jardunaldian. Hurrengo asteetan partida garrantzitsuak izango ditu taldeak; hurrengo astean, sailkapen buru den IDK Pari Berri Donibane izango du aurrez aurre

## Txintxarri

Liga amaitzeko sei jardunaldi faltan, Eguzki Arkupe Rehabilitaciones taldeak 1. mailako bigarren postua du helburu. Horretarako neurketaz neurketa puntuak gehitu behar ditu eta hilaren 11n, ez zuen hutsik egin. Idiazabal Bai Reformas izan zuen aurrez aurre Josu Lopez eta Mikel Escribanok zuzentzen duten taldeak; 8-1 gailendu zen.

Lopezek azaldu duenez, partida berdindua aurreikusi zuten Idiazabalgo taldearen aurka. "Norgehiagoka borrokatua espero genuen, baina Oiartzun garaitu ostean, banekien taldea sendo zegoela", adierazi du.

Etxeko taldea nagusi izan zen. Prestatzailearen aburuz, denboraldiko partidarik onena egin zuen Eguzki Arkupe Rehabilitaciones taldeak: "erasoan erraz jokatu genuen eta defentsan sendo egon ginen".

Eta azken partidetan taldeak egin duen defentsa lan ederra



Eguzkiko jokalaria, erasoan. TXINTXARRI

nabarmendu du. "Zerbait lortzeko intentsitate berean egin behar dugu lan defentsan", gehitu du.

Ilusioz egingo dio aurre Lasarte-Oriako taldeak Ligako azken txanpari. "Taldea aurrera pauso handia eman du eta maila onean dagoela erakutsi du," onartu du Lopez prestatzaileak.

Aurkarr zailak ditu, ordea. Lehena asteburu honetan, Teep Tolosala. "Bosgarren sailkatua da. Irabaziz gero, errenta handitu eta play-offerako txartela gertuago izango dugu".

Beste bi partida garrantzitsu ere izango ditu sailkapen buru den IDK Pari Berri Donibane eta Euskaldunaren aurka. Bi neurketak Maialen Chourraut kiroldegian izango dira, bata martxoaren 27ko asteburuan, bestea maiatzaren 8koan.

"Etxean dira partidak eta horrek gure alde egitea espero dugu. Pari Berriren aurkako hitzordua gorritz daukagu markatua. Garaitu nahi ditugu eta gure maila erakutsi. Euskaldunaren aurka, berriz, azken jardunaldian neurtuko ditugu indarrak. Egun laugarren postuan da. Denboraldian zehar asko hobetu duen taldea da eta euren aurkako neurketak politik izan ohi dira", aurreratu du entrenatzaileak.

# Herritarrek, Udaberri lasterketako lehen postuetan

Raul Gomez Margallo eta Maite Salazar Badiola izan dira herritarren artean azkarrenak

## Txintxarri

Udaberriko lasterketak lehiatu zen, hilaren 13an, Donostian. Mila bat korrikalarik parte hartu zuten 10 kilometroko proban eta horien artean lasarteoriatarrek izan ziren. Raul Gomez Margallo (32.28) eta Maite Salazar Badiola (41.19) izan ziren herritarren artean lehenak helmuga igarotzen. Sailkapen orokorrean zortzigarren eta bederatzigarren izan ziren, hurrenez hurren. Alabaina, Gomez Margallo VET45 mailako lehena izan zen eta Salazar Badiola, berriz, laugarren senior mailan.



Maite Salazar Badiola, proban. J. ZATARAIN

## Senpere Trail

Ez zen egun horretan lasterkatu zen proba bakarria izan. Senpere Trail Mendi lasterketa ere jokatu zen. 21,5 km. eta 1.050 metroko

desnibel positiboko proban Lasarte-Oria Trail Mendi Elkarteko Mertxe Casas Sanchezek parte hartu zuen. Helmugan 3.12.17 denbora egin eta master mailako 3. postua eskuratu zuen.

## ZUZENKETA

### Lilatoiean Salazar izan da lehen herritarra

TXINTXARRI aldizkariko 1578. zenbakian, orrialde honetan bertan, Lilatoieko herritarrik azkarrena Nieves Civicos Marcos izan zela bagenion ere. Okerreko sailkapena kontuan izan genuen. Lasarte-Oriako ordezkariaren artean, Maite Salazar Badiola izan zen lehena. Denbora ederra egin zuen gainera, 19.09 eta hamabosgarren izan zen.

## ASTEBURUKO HITZORDUAK

<b>FUTBOLA</b>
<b>OHOREZKO ERREGIONAL MAILA</b>
<b>Eibar SAD - Ostadar SKT</b> Larunbata. 17:45. Unbe, Eibarren.
<b>GORENGOEN MAILA, IGOERA</b>
<b>Ostadar SKT - Roteta CD</b> Larunbata. 18:40. Michelin kirol gunean.
<b>ERREGIONALEN 1. MAILA, IGOERA</b>
<b>Ostadar SKT - Segura Goierri KE</b> Igandea. 13:25. Michelin kirol gunean.
<b>OJM, MAILA MANTENTZEKO FASEA</b>
<b>Ostadar SKT - Eibar SAD</b> Larunbata. 16:45. Michelin kirol gunean.
<b>JUBENIL 1. MAILA, KOPA</b>
<b>Ostadar SKT B - Usurbil FT</b> Igandea. 11:30. Michelin kirol gunean.
<b>Euskalduna SD - Ostadar SKT A</b> Larunbata. 19:30. Ubitarte, Andoainen.
<b>OKM, MAILA MANTENTZEKO FASEA</b>
<b>Aloña Mendi KE - Ostadar SKT</b> Igandea. 12:00. Azkoagain, Oñatin.
<b>KADETE 1. MAILA, IGOERA</b>
<b>Burumendi FG - Texas Lasartearra</b> Igandea. 17:30. San Miguel, Mutrikun.

<b>KADETE 1. MAILA, KOPA</b>
<b>Ostadar SKT A - Martutene KE B</b> Larunbata. 13:00. Michelin kirol gunean.
<b>Kostkas KE B - Ostadar SKT B</b> Larunbata. 11:15. Matigoxotegi, Donostian.
<b>ARETO FUTBOLA</b>
<b>1. MAILA</b>
<b>Teep Tolosala - Eguzki Arkupe Rehabilitaciones</b> Ostirala. 20:45. Uzturpe fr., Tolosan.
<b>2. MAILA</b>
<b>Eguzki ISU Leihoak - Teep Tolosala</b> Ostirala. 20:50. Maialen Chourraut kirol.
<b>GAZTEEN MAILA</b>
<b>Zarautz KE A - Eguzki AF</b> Larunbata. 09:30. Aritzabalde kirol., Zarautzen.
<b>SASKIBALOIA</b>
<b>SENIOR 1. MAILA</b>
<b>TAKE - Ostadar SKT</b> Larunbata. 16:00. Usabal kirol., Tolosan.
<b>SENIOR 2. MAILA</b>
<b>Ostadar SKT - Luberrri Baserrria KMO (atzeratutako partida)</b> Larunbata. 18:00. Maialen Chourraut kirol.

<b>Saski Goiena Hemen Garbiketak - Ostadar SKT</b> Igandea. 18:00. Manuel Muñoz kirol., Eskoriatzan.
<b>SENIOR 3. MAILA</b>
<b>TAKE Coach - Ostadar SKT</b> Larunbata. 14:15. Usabal kirol., Tolosan.
<b>KADETE ERRENDIMENDU</b>
<b>Eskoriatza KE- Ostadar SKT</b> Larunbata. 09:30. Manuel Muñoz kirol., Eskoriatzan.
<b>KADETE PARTAIDETZA</b>
<b>Bera Bera Urgull - Ostadar SKT</b> Larunbata. 09:30. Manteo kirol., Donostian.
<b>BOLEIBOLA</b>
<b>EUSKAL LIGA</b>
<b>Arizan Gallartaren Ahotza - Ostadar SKT</b> Larunbata. 19:00. IES Dolores Ibarruri, Abanto-Zierbenan.
<b>JUBENIL MAILA</b>
<b>Ostadar SKT - Fortuna</b> Igandea. 10:45. Maialen Chourraut kirol.
<b>KADETE MAILA</b>
<b>Ostadar SKT - Aldapeta Maria C</b> Larunbata. 09:30. Maialen Chourraut kirol.

<b>ERRUGBIA</b>
<b>OHOREZKO B MAILA</b>
<b>Gesalaga Okelan Zarautz RT - Unibersitario Bilbao</b> Igandea. 12:00. Asti, Zarautzen.
<b>EUSKAL LIGA 2. MAILA</b>
<b>Gesalaga Okelan Zarautz Beltzak RT - BRT Menditarrak</b> Larunbata. 15:00. Asti, Zarautzen.
<b>IGERIKETA</b>
<b>EUSKAL HERRIKO TXAPELKETA</b>
<b>Buruntzaldea IKTKo igerilariak Absolutu eta Junior mailako Neguko Euskal Herriko Txapelketa lehiatuko dute.</b> Larunbata eta igandea. Mendizorrotza kirol., Gasteizen.
<b>TEKNIFIKAZIOA SAIOA</b>
<b>Buruntzaldea IKTKo bost alebinek Gipuzkoako Federazioak antolatutako teknifikazio saioan parte hartuko dute.</b> Larunbata. Goiza. Paco Yoldi kirol., Donostian.
<b>XAKEA</b>
<b>3. MAILA</b>
<b>Lasarte-Oriako Taula Xake Klubak taldekako Gipuzkoako Txapelketako</b>

<b>jardunaldia du. Bidasoa Fiantxeto 2019 D izango du aukari.</b> Larunbata.
<b>TXIRRINDULARITZA</b>
<b>LAUKIZKO UDAL SARIA</b>
<b>Eibar Txirrindularita taldeko Asier Pozo eta ander Altuna herritarrek XXV. Laukizko Saria lehiatuko dute.</b> Larunbata. 10:00. Laukiz, Bizkaian.
<b>CIRILO ZUNZURREN OROIMENEZKOA</b>
<b>Amateur mailako Lasarte-Oriako txirrindulariak Cirilo Zunzurren Oroimenezkoan parte hartuko dute.</b> Igandea. 10:00. Lizarra, Nafarroan.
<b>AUTOMOBILISMOA</b>
<b>ANDATZA-AIA IGOERA</b>
<b>Euskaldiko Mendi igoeren denboraldiari hasiera emango diote herriko gidariek XV. Andatzatik Aiara igoeran.</b> Larunbata. 14:30. Aian.
<b>DUATLOIA</b>
<b>OÑATIKO DUATLOIA</b>
<b>Lasarte-Oriako kirolariak Oñatiko Duatloian izango dira lehian.</b> Larunbata. 16:30. Oñatin.

# Ostadarrek, ezin garaipena erdietsi

Senior 1. Mailako taldeak sailkapen buru Graficas Juaristi Zast taldearen aurka neurtu ditu indarrak. Lehen zati borrokatua izan arren, Zarauzko taldea nagusitu da. Lau jardunaldi falta dira Liga amaitzeko eta lauko finalean sartu nahi du Ostadarrek

## Txintxarri

Lau partidatan jarraian garaipena erdietsi ostean, Senior 1. Mailako taldeak sailkapeneko buru den Graficas Juaristi Zast taldea hartu zuen hilaren 12an, Maialen Chourraut kiroldegian. Neurketa borrokatua zirudien arren, atsedenaldiraren ostean partida irauli zuen Zarauzko taldeak.

Norgehiagoka lehiatua eta gogorra espero izanagatik, ederki hasi zuen lehen zatia etxeko taldeak. Endika Marrahi zuzentzen dituen jokalariek azkar jokatzeko aukera izan zuten, eta saskiraketa erosoak lortu zituzten.

Graficas Juaristi Zastek, berriz, bere jokoa egin zuen: baloia mugitu eta lekua aurkitzeaz gain, kanpoko jaurtiketa pare bat ere sartu zituen. Horrela, hiru puntuko abantailarekin amaitu zuten laurdena zarauztarrek.

Falta ugari egin zituzten bi taldeek bigarren laurdenean, eta horrek erritmoa lasaitu zuen. Hala ere, berdinduta jarraitu zuten, eta Ostadarrek puntu batengatik irabazi zuen partziala (18-17). Atsedenaldira, beraz, 32-34 iritsi ziren.

Neurketako bigarren zatian indarrak berdinduta jarraituko



Ostadarreko jokalaria, erasoan. TXINTXARRI

zutela zirudien arren, Zarauzko taldea indartsu hasi zen erasoan eta errenta handitu zuen. Ostadarreko jokalariek ez zuten amore eman nahi, eta lanean jarraitu zuten. Graficas Juaristi Zastek defentsaren intentsitatea jaitsi zuen eta horri esker, Ostadarrek hiruko bat egin eta bederatzi puntutara murriztu zuen aldea.

Azken laurdenean, ordea, talde urdin-beltzak ezin izan zuen aurkariaren erritmoa jarraitu. Ondorioz, zarauztarrek ihes egin zuten, azken hiru minutuetan

0-9ko partziala eginda. Azken emaitza 53-75 izan zen. Endika Marrahi prestatzaileak lehen bi laurdenetan egindako lana nabarmendu du: "Aurkaria geratzeko gai izan gara batez ere, zona barruan". Onartu du zarauztarren maila altua dela, eta Ostadarreko 1. Seniorrak ezin izan ziola amaierara arte eutsi.

## Lauko finala buruan

Ligako lehen fasea amaitzeko lau neurketa falta ditu Senior 1. Mailako taldeak eta lauko finalean sartzeko, horietako hirutan garaipena erdietsi behar duela jakitun da Marrahi.

Egun, sailkapeneko bosgarren postuan da Ostadar 17 punturekin, baina gertu ditu hirugarren zein laugarren postuan dauden Goierri Ayma (19 puntu) eta CD Internacional (18 puntu). Azken horren aurka, itzuliko partida jokatu behar du gainera, apirilaren 3ko asteburuan.

Gainerako taldeei dagokionez, Senior 2. Mailako taldearen garaipena nabarmendu behar da. CD Internacional Mons gainditu zuen etxean, 63-50. Lau partida jarraian irabazi ditu talde urdin-beltzak.

hasiko da, Hondarribian, eta egun horretan jasoko dira txartelak. Itzuliak partaideak ezagutzera eman ostean, herritarren eskura jarriko dituzte txartelak, eta txirrindularien zerrendak, ohiko tabernetan.

Azken urteetan egin modura, Internet bidez ere aukera izango da txartelak erosi eta porra jarraitzeko. Bakoitzak 8 euro balioko ditu. Sari nagusian parte hartzeko lau probetan parte hartu behar da eta txartelek izen berdina izan behar dute; hamar egin daitezke, gehienez, probako.

## 1.600 euroko saria 'Aurten 4ak baietz!!' txirrindularitza porran

Euskal Herriko Itzulia, Giroa, Tourra eta Espainiako Vuelta proba izango ditu kontuan porrak

## Txintxarri

Ostadar SKTk *Aurten ere 4ak baietz!!!* txirrindularitza porra antolatuko du. Lau proba izango ditu kontuan lehiaketak: Euskal Herriko Itzulia, Giroa, Tourra eta Espainiako Vuelta.

Lau itzulietan parte hartzen duen txartelak onenak 1.600 euroko

saria eskuratuko du. Horrez gain, proba bakoitzeko lehen sailkatuak 400 euro irabaziko ditu, eta bigarrenak, berriz, 200 euro. Etaparo, irabazleak 65 euro poltsikoratuko ditu, eta bost urdaiazpiko ere zozkatuko dituzte.

Euskal Herriko Itzulia izango da lehen proba. Apirilaren 4an



Ostadarreko jokalariek, aurkariaren eraso geratzen. TXINTXARRI

## Aixerrotak Ostadar gainditu du Euskal Ligako jardunaldian

Lehen setean ederki borrokatu arren, gainerako bietan ezin izan du ezer egin Lasarte-Oriako senior taldeak

Aixerrota talde "indartsuaren" aurka neurtu zituen indarrak Ostadar Boleiboleko seniorrak, hilaren 12an, Maialen Chourraut kiroldegian. Nahiz eta lehen seta berdindua izan, talde bizkaitarrak joko aldatu eta etxeko taldeak ezin izan zuen partida eskuratu.

Ostadarreko jokalariek fin hasi zuten neurketa. Defentsa zein erasoan sendo jokatu zuten eta setak gutxigatik ihes egin zion etxeko taldea, 24-26.

Bigarren zatian, ordea, Aixerrotak jokoaren intentsitatea aldatu eta partida bereganatu zuen. Nahiz eta Ostadarrek defentsa ona egin, eraso kopurua eta eraginkortasuna murriztu ziren. Ondorioz, aurkariak bigarren eta hirugarren setak (15-25 eta 9-25) irabazi zituen.

Asier Acuriola entrenatzaileak azaldu duenez, pozik dago taldearen lanarekin: "Joaneko

neurketan, Aixerrotak ez zigen aukerarik eman. Oraingoan, lehen seta ederki borrokatu dugu".

Hurrengo jardunaldian Euskal Liga ofizialki amaitzen den arren -Arizan Gallartaren Ahotza taldea izango du aurkari, hilaren 19an-, Ostadarrek atzeratu ziren bi partidei ere egin beharko die aurre hurrengo asteetan. Horietan, Navarvoley Fercor Serigrafias eta Ibararte taldeak izango ditu aurrez aurre.

Boleibol taldeak ez du ezer jokoan; sailkapeneko azken postuan da eta ez du igoera jokatzeko aukerarik. Alabaina, liga euren onena ematen amaitu nahi dute Acuriolaren jokalariek.

Gainerako taldeen emaitzei dagokionez, jubencil mailako taldeak garaipena erdietsi zuten; 2-3 garaitu zuen Hernani KE. Kadete mailako taldeak, berriz, 3-0 galdu zuen Arizmendi ikastolako A taldearen aurka.

## Squash txapelketa sozialeko izen ematea ireki da

COVID-19aren pandemiaren ondorioz, azken bi urteetan Lasarte-Oriako Squash Txapelketa Soziala ezin izan du antolatu udalerriko kirol zerbitzuak. Osasun egoerak hobera egin duela eta, 32. aldia martxan jarri duela jakitera eman berri du udalak, baita izen ematea ireki dela ere. Partidak 2022ko apirilaren 4tik ekaina

erdialdera arte jokatuko dira, Maialen Chourraut kiroldegiko kantuan.

Parte hartzeko asmoa duten kirolariek martxoaren 25era arteko epea dute (ostirala da) Maialen Chourraut kiroldegiko kafetegian izena emateko. Horren harira, parte hartzaileek 14 urte baino gehiago izan behar dutela nabarmendu dute antolatzaileek. Inskripzioaren prezioa 11 eurokoa da udal instalazioetako bazkide diren lasarteoriarrentzat.

## ZORION AGURRA



**Izaro**  
ZORIONAK printzesa!!!  
6 muxu potolo  
familiaren partez!!  
Asko maite zaitugu.

## Urte askotarako!

Zorion itzazu urteak bete, ezkondu berri edo urteurrena bete duten lagunak eta senitartekoak, baita jaioberriak ere

### Internet

- [txintxarri.eus/zorionagurrak](http://txintxarri.eus/zorionagurrak).
- Zure erabiltzailearekin sartu/ Erabiltzaileak ez baduzu izena eman.
- Bidali zure zorion agurra formularioa betez.
- Zorion agurra formularioan zehaztutako datan argitaratuko da webgunean eta ostiralean paperean.

### Posta elektronikoa

- Mezua bidali [txintxarri@ttakun.eus](mailto:txintxarri@ttakun.eus) helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, urtebetetze eguna, urteurrenaren data edo ezkontzaren data eta nahi duzun testua.

Osteguneko 16:00ak arte jasotako zorion agurrak.

## JAIOTAKOAK

**Eñaut Arruabarrena Irizar.** Martxoaren 13an.




## Jaio da!


Eman jaiotzen berri TXINTXARRI-n.  
Deitu 943-37 14 48 telefonora,  
bidali haurraren  
izen-abizenak eta jaiotze data  
[txintxarri@ttakun.eus](mailto:txintxarri@ttakun.eus) helbide elektronikora  
edo 688 68 35 10 WhatsApp zenbakira

## EGURALDIA LASARTE-ORIAN


Ostirala, 18




Larunbata, 19




Igandea, 20



Astelehena, 21




Asteartea, 22



Asteazkena, 23



Osteguna, 24



## GUARDIAKO FARMAZIAK

OSTIRALA, 18	GIL	EGUNeko FARMAZIAK: 09:00-22:00
LARUNBATA, 19	GANDARIAS-URIBE	DE ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943-36 26 52
IGANDEA, 20	GANDARIAS-URIBE	ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943-36 35 49
ASTELEHENA, 21	ACHA-ORBEA	DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943-37 11 51
ASTEARTEA, 22	URBISTONDO	LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943-36 17 74
AZTEAZKENA, 23	GANDARIAS-URIBE	GIL: Kale Nagusia 24/ 943-36 07 08
OSTEGUNA, 24	DE ORUE	URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943-36 65 67
		GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943-01 95 21

**GAUEKO FARMAZIA: 22:00-09:00**  
M. Gomez Bravo: Kale Nagusia 14, Hernani. 943-55 48 92

**URTE OSOKO GUARDIAK APLIKAZIOA** eskuragarri App Store edo Android Marketen

Informazio gehiago [www.cofgipuzkoa.com](http://www.cofgipuzkoa.com) webgunean eskuragarri.

## TELEFONOAK

### UDALAREN TELEFONOAK:

ERREGISTROA: 943-37 16 29  
EUSKARAKO ZERBITZUA: 943-37 61 84  
KIROLDEGIA: 943-37 61 82  
MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA:  
943-37 61 81  
GIZARTE ZERBITZUAK: 943-37 61 79  
KIUB: 943-36 16 05  
UDAL EUSKALTEGIA: 943-36 16 21  
MUNTTERI AEK: 607 62 52 33


### LARRIALDIKO TELEFONOAK:

OSASUN ZENTROA: 943-00 79 60  
DYA: 943-46 46 22  
GURUTZE GORRIA: 943-36 39 53  
UDALTZAINAK: 943-36 24 42  
ERTZAINZTA: 943-53 88 40  
SOS DEIAK: 112

## SUDOKUA

		3		5			1
	9						5
4			6	1			2
						6	8
5	6	7	1	8	3		
8		9				5	1
	1	4		6			
			8		7		9
	8				1		6

## KOMIKIA



## OHARRA

### 22. Korrikako produktuak eta petoak salgai

Muntteri-AEK euskaltegiko kideek ezagutarazi dute dagoeneko eros daitezkeela 22. Korrikan parte hartzeko petoak, bost euroan, eta baita material gehiago ere: kamisetak, jertseak, biserak...

Horretarako Muntteri-AEK euskaltegira, Geltoki kalea 17 zenbakira hurbildu behar dira horietako produktu edo petoak erosi nahi dituzten herritarrek.

### Algarve eta Cadizeko kostaldera bidai

Biyak Bat elkarteak Portugalgo Algarvera eta Cadizeko kostaldera bidai antolatuta du. Irteera maiatzaren 25etik ekainaren 5era izango da.

Bidaiaren prezioa 740 eurokoa da elkarteko kideentzat; bazkide ez diren pertsonak 820 euro ordainduko dituzte. Logela individuala nahi dutenek 230 euroko gehigarria izango dute.

Interesa duten pertsonak bulegoko ordutegian (10:30-12:30) eman behar dute izena. Plaza erreserba egiteko 350 euro ordaindu behar dira.

### Heriotzen berri eman

Inguruko norbaiten heriotzaren berri TXINTXARRI-n eman nahi baduzu, bidali zendutako pertsonaren izen-abizenak eta heriotza data [txintxarri@ttakun.eus](mailto:txintxarri@ttakun.eus) helbide elektronikora edo 688 68 35 10 WhatsApp zenbakira.

## Ttakunek harrera irekiko du

Duela bi urte, osasun larrialdiaren ondorioz, Ttakun Kultur Elkarteko bulegoko atea itxi behar izan zitzaion herriari; bazkide zein herritarrei harrera



telefonoz egitera mugatu behar izan zen. Egoerak hobera egin eta neurri murriztaile ia guztiak bertan behera geratu direnez, euskara elkarteak harrera presentzialaren zerbitzua berreskuratuko duela jakitera ematen du. Ordutegia honakoa izango da: astelehenean, 16:00etatik 18:00etara; asteartetik ostegunera, 09:00etatik 13:00era; eta ostiraletan, 09:00etatik 13:00era.

### AZOKA TXIKIA

**ETXEBIZITZA**

**inmolASARTE**

Etxea saldu edo alokatu nahi baduzu jar zaituz gurekin harremanetan. Esperientzia handia dugu. **Esku onetan zaude!**

943-53 64 81 | 629 63 18 38  
Inigo de Loiola, 2. behea.  
LASARTE-ORIA  
info@inmolasarte.com

**SALDU**

Marina D'O r urbanizazioko (Castellon) etxebizitza bat saldu nahi dut, hondartzako lehen lerroan kokatua: 68 metro ditu, hamalau metroko terraza, bi gela, bi bainugela, sukaldea eta egongela. Lasarte-Oriako edo inguruko etxebizitza batengatik ere trukatuko genuke. Harremanetarako zerbakia: 675 70 39 06

**ALOKAIRUA**

Bi neska gazte gara eta pisukide bila gabiltza. Etxea Zabaleta auzoan dago, 70 m2 ditu eta alokairua hilabetean 200 euro dira (gastuak

aparte). Interesa baduzu deitu mesedez telefono honetara: 663935176 (Irati)

**LANA**

**ESKARIA**

Lan bila nabil. Hoteletan garbiketa lanak egiteko, edo etxetan. Pertsonak zainduko nitzuzke orduka. Esperientzia handia eta erreferentziak. Harremanetarako zerbakia: 671 76 35 58.

Adineko pertsonak zainduko nitzuzke. Zaintza ikastaroa egina dut. Interno edo orduka lan egingo nuke. Harremanetarako zerbakia: 676 18 84 11.

Lan bila nabil. Interno moduan edo orduka lan egingo nuke. Harremanetarako zerbakia: 663 49 98 41.

Garbiketa lanak egingo nitzuzke, edota pertsona adinduak zaindu. Berehala lanean hasteko prest. Harremanetarako zerbakia: 643 23 92 51

Etxeko lanak egiteko edo haurrak zein adinekoak zaintzeko prest nago,

goizetan, 10:00etatik 12:00etara.

Harremanetarako zerbakia: 671 27 79 05.

Emakume euskalduna lan bila. Orduka lan egingo nuke. Etxeko lanetan, garbiketan... Esperientzia handikoa eta profesionala garbiketan.

Harremanetarako zerbakia: 673 55 62 89.

Pertsona serioa eta arduratsua eskaintzen da adineko pertsonak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Interna modura, asteburuetan edo ospitaleko zaintza egiteko. Lanean hasteko

prest. Harremanetarako zerbakia: 663 48 84 38.

Pertsona eskaintzen da pertsona helduak zaindu edo garbiketa lanak egiteko. Externa, orduka, gauetan edo ospitalean gauak egiteko prest. Harremanetarako zerbakia: 634 27 81 98.

**SALEROSKETA**

**SALDU**

Eskiak eta helduentzako botak saltzen ditut. Interesa duenak deizala 605 70 57 89 zerbakira.

Etxe aldaketa dela eta, zenbait altzari saltzen ditugu: bi plazako larruzko sofa, gorri ilun kolorekoa, egoera onean eta merke (300 euro); eta egongelarako altzari dotorea, estilo klasikokoa, oso egoera onean (400 euro). Interesa dutenei argazkiak bidaltzeko prest. Harremanetarako zerbakia: 616 83 11 52.

**BESTELAKOAK**

**HEZKUNTZA**

Eskola partikularrak ematen ditut. Lehen Hezkuntzako, DBHko eta

Batxilergoko saioak emateko eskaintzen dut nire burua, bainta Administrazioa edo Enpresa Zuzendaritza ikasten ari direnei ere. Edozein momentu eta orduetagan lan egiteko prest. Harremanetarako zerbakia: 688 68 02 33.

Unibertsitateko ikaslea naiz, eta DBH mailako eskola partikularrak emateko zein edozein adineko umeak zaintzeko eskaintzen dut nire burua, edozein momentu eta orduetagan lan egiteko prest. Harremanetarako zerbakia: 644 98 03 49.

Zientzia esparruko errefortzu saio partikularrak eskaintzen ditut, DBH eta Batxilergoko ikasleentzako, irakasgai askotan: Matematika, Fisika, Kimika, Marrazketa, Teknologia, Biologia eta Geologia. Ingeniaritza Mekanikoko gradua eta bigarren hezkuntzako masterra ditut. Harremanetarako zerbakia: 697 45 97 96.

### NABARMENDU ZURE EDUKIA

Iragarki nabarmenduak kobratuko dira soilik

**TAMAINA BERRIA**

Modulo txikia. 12€ (BEZ barne) [publizitatea@ttakun.eus](mailto:publizitatea@ttakun.eus)

**TAMAINA BERRIA**

Modulo handia. 20€ (BEZ barne) [publizitatea@ttakun.eus](mailto:publizitatea@ttakun.eus) 646 82 44 66

### ESKELA


**ESKELAK JARTZEKO**

**TEL: 943-37 14 48**  
edo TXINTXARRI erredakzioon

► Eskela Txintxarri paperean: **80 €**  
► Eskela Txintxarri paperean + Txintxarri.eus-en: **90 €**

**Txintxarri: doan eta euskaraz**  
**Lasarte-Oriako etxe guztietan 943-37 14 48**

### MANTTANGORRI HIRIBUSA



### Lanegunak

Antxisu	Zabaleta	Atsobakar	Kotxerak
08:00	08:10	08:15	08:20
08:40	08:50	08:55	09:00
10:30	10:40	10:45	10:50
11:00	11:10	11:15	11:20
11:30	11:40	11:45	11:50
12:05	12:15	12:20	12:25
12:30	12:40	12:45	12:50
13:00	13:10	13:15	13:20
13:30	13:40	13:45	13:50
16:30	16:40	16:45	16:50
17:00	17:10	17:15	17:20
19:30	19:40	19:45	19:50
20:00	20:10	20:15	20:20

## txintxarri

[www.txintxarri.eus](http://www.txintxarri.eus)

**Argitaratzailea**

Ttakun Kultur Elkarte  
Geltoki kalea 4 (behea)  
20160 Lasarte-Oria  
G-20407557

**Administraria**

Nerea Garziarena.

**Erredakzioa**

Nerea Eizaguirre, Inigo Gonzalez,  
Maddi Zaldua eta  
Maitane Aldanondo.

**Publizitatea**

Irati Zatarain.

**Laguntzaileak**

Gorka Lasa, Asier Odriozola,  
Gorka Alvarez, Jexux Artetxe,  
Maitane Rebe, Julen Basterra,  
Nerea Segura, Lierni Rekondo  
eta Aizpea Amas.

**Banatzaileak:**

Unai Bardaji, Oier Bocos, Lide  
Hidalgo, Nahia Fabian, Julene Iraola,  
Egoitz Epelde, Sergio Hernandez,  
Ander Hazas eta Inigo Garcia.

**Informatika zerbitzua**

IZT Informatika.

**PUBLIZITATEA**

Geltoki kalea 4 (behea)  
Tel.: 943-37 14 48 (106)  
WhatsApp: 646 82 44 66  
[publizitatea@ttakun.eus](mailto:publizitatea@ttakun.eus)

**EGOITZA NAGUSIA**

Ttakun Kultur Elkarte  
Geltoki kalea 4  
Tel.: 943-37 14 48 (104)  
WhatsApp: 688 68 35 10  
[txintxarri@ttakun.eus](mailto:txintxarri@ttakun.eus)

**Inprimategia**

Zeroa Multimedia, S.A.

**Lege Gordailua:** SS-513/93

ISSN: 1134-0053

Tirada: 8.500 ale

### BABESLEA



**LASARTE-ORIA**  
UDALA

### DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENEA:



**Gipuzkoako Foru Aldundia**

# AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKEN ARRATSALDEA BAINO LEHEN



**LASARTE-ORIA Dokumentalak.** Okendo Zinema Taldeak "kutsu sozial nabarmena" duten bost euskal dokumental ekarriko ditu herrira. Ostegunean, hilaren 17an egin dute lehen emanaldia; *Bolante baten historia* proiektatu dute. Datozen egunetan ere dokumental gehiago ikusteko aukera izango dute herritarrek. Bihar, martxoaren 19an, *Apaiz kartzela*; martxoaren 24an, *Hijos de dios*; martxoaren 26an, *Tipularen sehaska kanta*; eta, hilaren 27an, azkena, *Aita Mari*. Bost emanaldi horietako bakoitza ikusteko sarrerek 6 euro balio dute. Martxoaren 19an, 24an, 26an eta 27an Manuel Lekuona Kultur Etxean, 20:00etan.

## OSTIRALA 18

### LASARTE-ORIA Erakusketa

Idoia Telleria Maritxalar argazkilari lasarteiatarrak *Ni naiz, Idoia* erakusketa ondu du. Emakumeen Nazioarteko Egunaren zein emakumearen ahalduz eta identitatearen gainean landutako egitasmo pertsonala da, argazki eta bideoz osatua. Antonio Mercero gunea, 18:00etatik 20:00etara.

## LARUNBATA 19

### LASARTE-ORIA Zinema

Okendo Zinema Taldeak euskal dokumentalen zikloa antolatu du. Bigarren ikus-entzunezkoa *Apaiz kartzela* izango da. Sarrerek 6 euro balio dute. Manuel Lekuona, 20:00etan.

### HERNANI Jaialdia

Buruntzaldeko Kontseilu Sozialistak eskualdeko jaialdia egingo du Hernaniko gaztetxean. Kinada talde lasarteiatarrak eta Kristonak bizkaitarrak joko dute. Sarrerek llargi (Lasarte-Oria) zein Goiz Argi (Hernani) tabernetan eros daitezke, 5 eurotan.

Kontrakantxa gaztetxea, 22:00etan.

## IGANDEA 20

### LASARTE-ORIA Zinema

*Kikoriki dejavu* filma proiektatuko dute, haurrentzat. Sarrerek 4 euro balio dute.

Manuel Lekuona, 17:00etan.

### LASARTE-ORIA Zinema

*Muerte en el Nilo* pelikula proiektatuko dute. Sarrerek 6 euro balio dute.

Manuel Lekuona, 19:30ean.

## ASTEARTEA 22

### LASARTE-ORIA Solasaldia

*Euskararen egoera herrian: nondik gatoz, nola gaude, nora goaz?* solasaldia antolatu du Korrika Kulturalak. Ane Labakak moderatuko du, eta sei gonbidatuk parte hartuko dute: Joxe Mari Agirretxe Porrotx, Iñaki Arruti, Bea Egizabal, Maider Galardi, Uxue Loinaz eta Mari Karmen Ormazabal. Sarrera, doan. **Ttakunenea, 18:30ean.**

### LASARTE-ORIA Irakurle txokoa

Lasarte-Oriako Irakurle Txokoko kideek Edna O'Brien idazlearen *Landa aldeko neska* eleberriari buruz hitz egingo dute.

Manuel Lekuona, 18:30ean.

## OSTEGUNA 24

### LASARTE-ORIA Dokumentala

Okendo Zinema Taldeak euskal dokumentalen zikloa antolatu du. Hirugarren ikus-entzunezkoa *Hijos de dios* izango da.

Manuel Lekuona, 20:00etan.

## OSTIRALA 25

### LASARTE-ORIA Antzerkia

*Arima* izeneko ikuskizuna taularatuko du Amaia Elizaran interpretateak. Sarrerek 5,50 euro balio dute. XVII. Dantza Zirkuituaren barruko emanaldia da.

Manuel Lekuona, 20:00etan.

### LASARTE-ORIA Jaia

Garagardo artisauen dastaketa antolatu du Lasarte-Oriako Extremadura Etxeak: bost garagardo eta bost pintxo emango dituzte. Bazkideek 15 euro ordaindu behar dituzte, eta ez bazkideek, berriz, 18. Parte hartu nahi dutenek, 681 221 759 telefono zenbakira deitu behar dutela jakinarazi dute antolatzaileek.

Extremadura Etxea, 20:00etatik 23:00etara.

## ZINEMA

### LASARTE-ORIA

#### MANUELLEKUONA

'Kikoriki dejavu'  
Larunbata 18  
19:30, 22:00.  
Igandea 20  
17:00.

'Muerte en el Nilo'  
Igandea 20  
19:30.

### HERNANI

#### BITERI

'El caso Villa Caprice'  
Ostirala 18  
22:30ean.  
Larunbata 19  
19:30ean.  
Igandea 20  
19:30ean.

'Earwing y la bruja'  
Larunbata 19  
16:30.

Igandea 20  
16:30.

### ANDOAIN

#### BASTERO

'El triunfo'  
Larunbata 18  
19:30, 22:00.  
Igandea 20  
19:30.

'Ainbo: La Guerrera del Amazonas'  
Larunbata 18  
17:00.

Igandea 20  
17:00.

### USURBIL

#### URBIL

'Ainbo: La Guerrera del Amazonas'  
Ostirala 18  
15:45.

Larunbata 19  
15:45.

Igandea 20  
15:45.

'Código emperador'

Ostirala 18  
16:00, 18:35,  
21:10.

Larunbata 19  
16:00, 18:35,  
21:10.  
Igandea 20  
16:00, 18:35,  
21:10.

'Harry Potter y las reliquias de la muerte'  
Ostirala 18  
16:30, 17:50,  
19:00, 20:30,  
21:50.

Larunbata 19  
12:00, 15:45.  
Igandea 20  
12:00, 15:45.

'Los tipos malos'  
Ostirala 18  
15:55, 18:00,  
18:30, 21:05.

Larunbata 19  
12:00, 15:55,  
18:00, 18:30,  
21:05.

Igandea 20  
12:00, 15:55,

18:00, 18:30,  
21:05..

'Malnazidos'  
Ostirala 18  
20:35.

Larunbata 19  
12:15, 20:35.  
Igandea 20  
12:15, 20:35.

'The Batman'  
Ostirala 18  
16:30, 17:50,  
19:00, 20:30,  
21:50.

Larunbata 19  
12:10, 16:30,  
17:50, 19:00,  
20:30, 21:50.

Igandea 20  
12:10, 16:30,  
17:50, 19:00,  
20:30, 21:50.



## LABURPENA

### 'Muerte en el Nilo'

**Zuzendaria:** Kenneth Branagh. **Gidoia:** Michael Green eta Agatha Christie. **Argazkia:** Haris Zambarloukos. **Ekizleak:** The Estate of Agatha Christie, 20th Century Studios. **Herrialdea:** Ameriketako Estatu Batuak (2022). **Iraupena:** 127 minutu. **Generoa:** Intriga, thrillerra, krimena. **Aktoreak:** Kenneth Branagh, Gal Gadot, Letitia Wright, Armie Hammer, Annette Bening, Ali Fazal, Sophie Okonedo, Tom Bateman, Emma Mackey, Dawn French, Rose Leslie, Jennifer Saunders, Russell Brand, Nikkita Chadha.

## Hiltzaile batek oztopatutako bidia

Agatha Christieren 1937ko eleberrian oinarrituta dagoen filma da. *Muerte en el Nilo* Kenneth Branaghek zuzendutako misteriozko thriller bat, kaos emozionalari eta maitasun obsesiboek eragiten dituzten ondorio hilgarriei buruzkoa. Hércules Poirot detektibe

belgikarrak lurruntz batean igaroko ditu bere opor egunak, Egipton. Bat-batean, ordea, erabat aztoratuko da oporretako lasaitasuna. Hiltzaile baten bilaketa lanak hasiko dituzte, bikote perfektu baten eztei-bidia idilikoa modu tragikoan eteten denean.

# TTAKUN UDALEKUAK 2022

## LH3-LH4

### LARRAUL (GIPUZKOA)

UZTAILAREN 15etik 22RA

TTAKUNEKO BAZKIDEAK: 205€  
BAZKIDEAK EZ DIRENAK: 220€

HILABETE OSOKO ESKAINTZA  
(Udalekuak + Udako txoakoak)

TTAKUNEKO BAZKIDEAK:  
9.000etatik 294€ / 10.000etatik 273€  
BAZKIDEAK EZ DIRENAK:  
9.000etatik 316€ / 10.000etatik 293€

+ Jangela. 75 €

## LH5-LH6

### DONEMILIAGA (ARABA)

UZTAILAREN 4tik 13RA

TTAKUNEKO BAZKIDEAK: 260€  
BAZKIDEAK EZ DIRENAK: 280€

HILABETE OSOKO ESKAINTZA  
(Udalekuak + Udako txoakoak)

TTAKUNEKO BAZKIDEAK:  
9.000etatik 335€ / 10.000etatik 317€  
BAZKIDEAK EZ DIRENAK:  
9.000etatik 360€ / 10.000etatik 341€

+ Jangela. 65 €

## DBH UDALEKUAK

### DBH 1-DBH2 ALBENZ (ARABA)

UZTAILAREN 4tik 14RA  
erdi ibiltaria!

### DBH 3-DBH4 ASKIZU (GIPUZKOA)

UZTAILAREN 18tik 28RA

TTAKUNEKO BAZKIDEAK: 288€  
BAZKIDEAK EZ DIRENAK: 310€

Izen ematea:

### MARTXOAREN 21etik maiatzaren 8RA.

[WWW.LABURV.EUS/UDALEKUAK22](http://WWW.LABURV.EUS/UDALEKUAK22) PLAZAK MUGATUAK

Lehentasuna izango duite gazteak eta kuadrillategiko erabiltzaileak (40ko asistentziarekin) Iaz Udaleku itxietan arduratzaileak eta bazkidean seme-alabek. Martxoaren 23ra arte (barne) izango dute HOPiEK izena emateko aukera.

943-37 14 48





**martxoak 10 - 30**



Nafar hegoaldeko uzta eskutik eskura

## Oinak lurrean

Bete ezazu despentsa urte guztirako

[errigora.eus](http://errigora.eus)

Eskatu Nafarroa hegoaldeko oliba-olio birjina estra, kontserbak, arroza, pasta eta lekaleak euskaraz etiketatuta eta ekoizlearen jatorrizko prezioan.



# HITZEKIN

22.korrika

Amurriotik Donostiara

2022ko martxoaren 31tik apirilaren 10era

## MATERIALA HEMEN SALGAI:

Korrika dendetan, AEKren euskaltegietan eta [www.korrika.eus](http://www.korrika.eus) atarian.



korrika.eus

